

Iñude, artzai, zahagi eta mila mozorro alai, Inauteri igandean dantzan

Gaur hasiko dira Inauteriak Goizuetan, gaztetxoek Zahagi Dantzarekin. Hernanin konpartsen eguna da, eta Iñude eta Artzaien txanda izango da Astigarragan.

URUMEA INAUTERIAK

Giro eguzkitsua argituta, kolorez beteta ageri ziren atzokoan ere, Hernani eta Astigarragako kaleak, herritarren mila mozorroekin beteta. Festa giroa nagusitu zen egun osoan, txarangarekin, erraldoi eta buru-haundiekin, dantza festarekin...

Eta hernaniar eta astigarrarrei, goizuetarrak batuko zaizkie gaur, lau eguneko festari hasiera emanez. Gaztetxoek Zahagi Dantzak piztuko du Inauterien sua arratsaldean, eta Leire eta Maria trikitilariak girotuko dute herria, mozorroen afarira bitartean. Beroketa lanak, astelehen eta astearteko egun haundietarako prestatzeko.

Astigarragan, berriz, gaur bukatuko dira Inauteriak, eta azkeneko egunean, Iñude eta Artzaien konpartsa izango da protagonista, eguerdi partean. Beraien dantza alaiarekin, herrian barrena ibiliko dira, garai bateko makina bat pertsonaia-aren laguntzaz, eta danbor eta txistu doinuek girotuta.

Eta Hernanin, konpartsen eguna izango da gaurkoa. Eguerdiko 12:00etan aterako dira, Urbietako kaletik, herriko txokoak alaitzera. Eta arratsaldean, musikaren txanda, aukera hiru-koitzarekin: txaranga, Hernani Musika Eskolako trikitilariak, eta Demode Quartet taldearen kontzertua Tilosetan.

Inauterietako argazki guztiak ikusteko: www.kronika.eus. **K**



Dantzarako gogotsu aritu ziren hernaniarrak atzo, goizetik gauera. Giro ederra izan zen Atsegindegiko dantza festan.

INAUTERIAK GAUR

GOIZUETAN

17:00, Gaztetxoek Zahagi Dantza.
18:00, Leire eta Maria trikitilariak.
21:30, Mozorroen afaria.

ASTIGARRAGAN

11:30, Iñude eta Artzaien konpartsa. Ergobiatik abiatuko dira Astigar taldeko dantzariak, danborradarekin eta Txirrisklako txistulariekin batera. Edonork hartu dezake parte desfilean, garaiko jantziekin apainduta.
13:30, Plaza dantza saio irekia, Joseba Barandiaran plazan.

HERNANIN

11:30, Inauterietako txaranga.
12:00, Konpartsen irteera Urbietako kaletik, Ttarla dantza taldearen eta Inmakulada ikastetxearen eskutik.
17:30, Inauterietako txaranga.
19:00, Hernani Musika Eskola Publikoko trikitilariak.
19:30, Demode Quartet taldearen kontzertua, Tilosetan.



Disko festa izan zuten astigarrarrek, DJ Klren eskutik, Kontxa Etxeberriaren.



Axeri Dantzak ez zuen gupidarik izan Hernanin, ipurdi eta bizkar mozorrotuekin.



Plenoa etzi, bi herrietan

ASTIGARRAGA-HERNANI UDALA

Hileko azkeneko asteartea da etzi, eta beraz, Plenoa egingo dute Hernani eta Astigarragako Udalek, ohiko deialdian. Biak izango dira 19:00etan, udal-lexe bakoitzeko pleno aretoan. Hernanin, landuko dute hutsik dauden etxeak 35 urte azpiko herritarrei alokatzea ahalbidetzeko proposamena, OinHerri Herri Hezitzailea sarean parte hartzeko akordioa, eta zenbait ordenantza fiskalen aldaketa, besteak beste. Eta Astigarragan, aztergaien artean daude Hirigintza Aholku Batzordearen arautegia, Berdinsarera atxikitzeko proposamena, martxoaren 8ko adierazpen instituzionala, edota Erregistro Zibilaren zerbitzua pribatizatu eta murriztearen kontrako mozioa.

Hautesle zerrenda ikusgai, bihar arte

ASTIGARRAGA UDALA

Apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarreko hauteskondeei begira, hautesle errolda jendaurrean ikusgai jarri du Astigarragako Udalak, eta bihar arte egongo da udal-lexe idazkaritzan, 09:00etatik 13:30etara. Horrela, herritarrek ikusi ahal izango dute, eta hala badagokie, erreklamazioak aurkeztu.

Eski ikastarorako, izenematea zabalik eta bilera bihar

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Mendiko edo trabesiako eski ikastaroa antolatu du Mendiriz Mendi elkarteak, datorren astebururako; otsailaren 29 eta martxoaren 1erako. Izena emateko epea zabalik dago, astelehen, ostegun eta ostiralean, 20:00etatik 21:00etara elkartean (Iturregi plaza). Eta interesa dutenekin, bilera egingo dute bihar, 20:00etan elkartean, zehazteko prezioa, ordutegia, xehetasunak...

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

GAUR Eguzkitsu egongo da gaur ere, eta udaberriko giroa izango dugu, goi-mailako lainoak agertu arren. Egunaren hasieran eta bukaeran, behe-lainoak ere sartu daitezke. Temperatura epelak izango ditugu. **Min.7° / Max.16°**

BIHAR ldo beretik jarraituko du bihar ere, eguzkitsua. Hala ere, tarteka zerua lainotu daiteke kostaldean. Hegoaldeko haize ahula ibiliko da goizean, eta ipar-mendebaldera aldatuko da eguerdian. Giro epela izango dugu berriro. **Min.8° / Max.16°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Esperantza bizirik mantentzeko, Santboianaren kontra gaur

Landaren jokatu du Hernanik, eguerdiko 12:00etan hasita. Mailari eusteko aukera izaten segi nahi dute trikoloreek, irabazita.

HERNANI ERRUGBIA

Egutegi zaila dauka Hernanik, errugbiko Ohorezko Mailan, denboraldi bukaerara bitarte; zaila daukan bezala, beste urte batez mailari eustea. Baina pronostiko guztiei kontra egin, eta esperantza bizirik mantendu nahi dute trikoloreek. Eta horretarako, berpiztuko dituen garai-pen baten bila aterako dira gaur, Landareko berdegunera.

Santboiana izango dute aurrean, eguerdiko 12:00etan hasita. Kontrario gogorra, hernaniarrek hain garrantzitsua luketen garaipen hori lortzeko. Bosgarren dago talde kataluniarra, Independiente eta Bartzelonarekin *play-off*erako postuak lehia-



Hernani eta Santboiana, aurreko denboraldiko partiduan, Landaren.

tzen. Aurreneko itzuliko erreferentzia ere, ez daukate aldeko trikoloreek: 62-7 galdu zuten, Baldiri Aleun.

Baina 11garren postua dagoeneko 12 puntura daukatenean, pronostiko guzti-guztiak hautsi beharrean daude hernaniarrek, eta talde indartsuenak ere menderatu beharko dituzte.

Horretarako, aurreko aste-buruko partidua ahaztu, eta bere maila onena berreskuratu beharko du Hernanik; Ordiziaren kontra erakutsi zuena, hain zuzen ere. Eta horretarako beharko dute, baita ere, etxeko zaleen laguntza; Inauterien festa giroa Landarera eraman, eta taldeari bultzada ematea. **K**

2015ean Abiatu hartu zutenek, gailua aldatu beharko dute

62.600 erabiltzaileri eragingo die, gailu horiek kadukatuko direla eta. Bihartik eskatu dezakete aldaketa, 'abiatu.bidegi.eus' webgunean.

ASTIGARRAGA-HERNANI BIDEGI

Abiatu gailua aldatu beharko dute datozen hilabeteotan, 2015 urtean hartu zutenek. Izan ere, kadukatu egingo zaie, 2020ko urte bukaera eta 2021eko martxo bitartean, sei urtekoa dela gailuen bizitza erabilgarria.

Hala azaldu dute Bidegik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta adierazi dute, 62.600 erabiltzaileri eragingo diela aldaketak; martxan dauden gailuen %65ari hain justu. Aldaketa eskatuta, Abiatu 2.0 gailu berria jasoko dute, eta bueltatu egin beharko dute gailu zaharra.

Datozen egunetan, erabiltzaile guztiak jasoko dute gutuna etxean, gailu berriari buruzko informazioarekin, eta baita aldaketa egiteko eman beharreko pausoekin ere.

Aritzetan, postetxean edo etxean jasotzea, aukeran

Bihar jarriko du martxan sistema eragilea Bidegik, aldaketa eskaerei erantzuteko. Horretarako, *abiatu.bidegi.eus* webgunean sartu beharko dute erabiltzaileek, beraien profileen, eta bertan, «oso modu erraz eta intuitiboan», datuak eguneratu beharko dituzte, eta tramiteak egin. Hori guztia, Bidegik Aritzetan daukan Bezeroen Arretarako Bulegoetan ere egin daiteke.

Eskaera egin ondoren, erabiltzaileek doan jasoko dute gailua, aukeratu duten tokian: etxetik gertuen duten postetxean, edota Aritzetako bulegoetan; eta nahi izanez gero, etxean ere jaso daiteke, entregatzeagatik euro bat ordainduta.

Gailu berria jasotzean, zaharra bueltatu beharko dute erabil-

tzaileek, edozein ordainlekutan edo Aritzetan. «Zaharra hilabete epean itzultzen ez bada, 36 euroko urteko kargua aplikatuko zaio, itzuli arte», azaldu dute.

Frantziako autobide guztietan eta Via T sistemari atxikitako aparkalekuetan, erabilgarria Nabarmendu dute, Abiatu 2.0 gailu berriak mantenduko dituela egungo gailuaren abantaila eta deskontu guztiak: «eta gainera, Frantziako autobide guztietan eta Via T sistemari atxikitako aparkaleku frantziarretan erabili ahal izango da».

Horrela, Bidegik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gogorazi dute, «Gipuzkoako autobideetan, estatukoetan, eta Frantzia eta Portugaleko autobide eta aparkalekuetan», Abiatuarekin ordaindu daitekeela, «aparteko kargurik gabe». Eta argitu dute, gailu aldaketak ez dakarrela inolako kosturik, eta mantentze tarifak urtean 7 eurokoa izaten jarraituko duela. **K**

Zuzendaritzarako hautagaiak aurkezteko batzar orokorra, etzi

Asteartean egingo du urteko batzarra, Goiz Eguzki jubilatuen egoitzak, 16:00etan; eta bertan aurkeztuko dira, zuzendaritza berrirako hautagaiak.

HERNANI GOIZ EGUZKI

Bere etorkizun lausoari buelta eman dio Goiz Eguzki jubilatuen egoitzak, urtarrilaren 13an egin zuten ezohiko batzarraren ondoren. Eta etzi emango dute beste pauso bat, egoitzaren jarraipena bermatzeko. Izan ere, urteko batzar orokorra egingo dute, arratsaldeko 16:00etan hasita egoitzan; eta bertan aurkeztuko dituzte, zuzendaritza talde berria osatzeko hautagaiak.

Goiz Eguzkiko bazkide guztiak irekia da, eta deia luzatu

diere, bertaratzeko.

Egungo zuzendaritza taldea, erreleborik ez zeukala eta, oso kezkatuta azaldu zen Goiz Eguzkiren etorkizunarekin. 14 urte zuzendaritzan egin ondoren, dimisioa aurkeztu zuten Paco Goya presidentea eta bere taldeak, hainbeste urteren ondoren nekatuta eta errelebo eske. Egoera kezkarriari buruz aritzeko, ezohiko batzarra deitu zuten urtarrilean, «elkartearen existentzia» zegoelako jokoan. Batzar horretan, hainbat bazkide azaldu ziren prest, zuzendaritza talde berria osatzeko.

Horrek buruhaustea arindu zituen, eta etorkizuna argitu. Bide horretan hurrengo pauso garrantzitsua eman beharko dute etzi, zuzendaritza taldea osatzeko hautagaiak aurkeztuta. Horrek bermatuko du Goiz Eguzkiren jarraipena. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA

Benita Oyarzabal Oyarzabal

2018ko otsailaren 23an hil zen, 89 urte zituela

Zuk erakutsi duzun indarra
eta bizi-poza bidali guri.

ETXEKOAK

Ereñotzu-Hernanin, 2020ko otsailaren 23an

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA

Bidali zure CV-a, otsailak 29ra arte:

kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte
Larramendi 11 behea
20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

BALORATUKO DA:

- / Urumea ballara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.

AKTUALIZAZIAREN JARRAIPENA

- / egitea.
- / Kazetari lanetan esperientzia.
- / Maketatzeko, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.
- / Sare sozialak menperatzea.

ESKAINIKO ZAIKO:

- / Kontratua: amatasun bajari dagokiona.
- / Eginkizunari dagokion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratu da.